


Napalmaren erredura sakonak



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Vietnam, 1965eko otsailaren 7a. AEBetako aire-armadak lehenengo z napalma erabili zuen biztanleria zibilaren kontra. Ez zen gasolina gelatinatsua erabiltzen zen lehen aldia. Bigarren Mundu Gerran hasi ziren bonbekin batera jaurtitzeko eta, Vietnamen bertan, Indotxinako Gerran erabilia zuten 1950eko urte amaieran, baita Koreako Gerran, Mendebaldeko Saharan, Nigerian, El Salvadorren...

Baina duela 60 urtekoa lehen eraso sistematikoa eta indiskriminatua izan zen. Eta ez zen azkena izango. 1972ko ekainaren 8an napalmez erasotu zuten Trảng Bàng herria. Phan Thị Kim Phúc bederatzi urteko neskatua errepidera joan zen ihesi, baina hegazkin bat hurbildu zitzaion eta, berehala, suak bere arropa guztia eta gorputzaren bi herenak erre zizkion. Nick Ut vietnamdar argazkilaria hantxe zegoen, eta argazki ikonikoa atera zion. Berehala, neskatua hartu eta ospitale-eraman zuen eta bere bizia salbatzen saia zitezen presioa egin zuen, Associated Press nazioarteko agentziako kide zela baliatuta. Hamalau hilabete eman zituen Kimek ospitalean eta hamazazpi ebakuntza egin zizkioten. Bizirik atera zen, baina oraindik jasaten dituen ondorio kroniko larriekin. Gerora, datu soil baina latza erabiliz deskribatu zuen bizitakoa: "Napalma imajinatu daitekeen oinazetik izugarriena da... Urak 100 gradutan irakiten du eta napalmak 800 eta 1.200 gradutako



NICK UT. ASSOCIATED PRESS

temperaturak eragiten ditu". Gainera, gasolina baino denbora gehiago behar du erretzeko, errazago hedatzen da eta helburuetara hobeto itsasten da.

Nick Uten argazkiak, besteak beste, Pulitzer saria jaso zuen, mundu osoan hedatu zen eta iritzi publikoan eragin sakona izan zuen. *New York Times* egunkariaren arabera: "AEBetan hazten ari zen sentimendu antibelikoak elikatu zuen eta, agian, Vietnamgo Gerraren amaiera bizkortu zuen".

Arma su-eragilearen krudelkeria Nazio Batuen Erakundera (NBE) ere iritsi zen. 1980an NBEren Zenbait

Arma Konbentzionalei buruzko Hitzarmenak (CCW) napalmaren erabilera debekatu zuen. Baina, batetik, CCWn parte hartzeko herrialdeek ez dute zertan bat egin hitzarmenaren protokolo guztiekin –nahikoa dute bost protokolatik bi onartzearekin– eta horrek esan nahi du NBEko kide askok ez dutela napalmaren kontrako debekua errespetatzen. Eta, bestetik, debekua helburu zibilei soilik eragiten die. Hau da, helburu militarren aurka erabil daiteke. Eta ederki dakigu, komeni zaienean, "helburu militar" kontzeptua zein malgua izan daitekeen. ●

Vasagårdeko eguzki-harriak

Danimarkako Vasagård aztarnategian 600dik gora harri grabatu aurkitu dituzte arkeologoek. Datazioen emaitzen arabera, duela 4.900 urtekoak dira, eta garai hartan Alaskan sumendi baten erupzio bortitza gertatu zela ere jakina da. Erupzio horren ondorioek Europa iparraldeko komunitate neolitikoetan kalte handiak eragin zituen, nahiz eta

haiak ez zekiten zein zen bat-bateko klima-aldaketaren arrazoa. Arkeologoek *Antiquity* aldizkarian jakinarazi dutenez, erupzioa eta harriak lotuta leudeke; eguzki itxurako grabatuak dituzten pieza horiek ofrenda moduan ehortzi zituzten beste objektu batzuekin batera, uzta onak eskatzeko eta erupzioak eragindako zorigaitzak uxatzeko. ●

